

Kultura

Zuzeneko musika eta antzerkia uztartuko ditu Asier Etxeandiak 'El intérprete' lanean, gaur, Arriolan >12



Aterpetxea zabalik dago, neguko hotzetik babesteko

Tabirako Errotagaina aterpetxea eskaintzen die Amankomunazgoak etxebakoei, neguan babeslekua izan dezaten >3



Olinpiar Jokoei begira, teknifikazio proiektuan dihardute Murrayk eta Barrutietak >16

Joana Murray (Durango, 18 urte) eta Uribarri Barrutietak (Durango, 17 urte) DRTko jokariak dira, eta Euskadiko selekzioagaz Espainiako Autonomien arteko Txapelketa jokatu dute. Euskadiko Errugbi Federakundeak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzagaz, proiektzio handia duten errugbi jokalarientzako teknifikazio proiektua abiatu du, eta bertan dihardute bi durangarrek. 2016an Brasilgo Olinpiar Jokoetan lehiatzeko euskal jokalariek ahalik eta aukera gehien izatea dute helburu.



ALKIMAX

Alquilamos soluciones



Eitua industrigunea 71C
48240 BERRIZ (Bizkaia)
94 682 45 50
alkimax@alkimax.net
www.alkimax.com



Durango > 2

Emakume erasotuak babestu ditu Berdintasun Kontseiluak

Abadiño > 4

Erralderen zorra bankuekin negoziatuko du udalak

Mañaria > 6

Herriko hizkera gordetzeko Ahotsak proiektua aurkeztu dute

Otxandio > 7

Hileta zibilak arautzeko ordenantza onartu du udalak

Herririk herri

> DURANGO

Gazte-lokalen ordenantza egiteko iritzia eskatzen dabil udala

2012an ordenantza osatzeko egin zuten saiakera geratu egin zen kritikengatik



Gazteen lokalen erabiltzaileek udaletxearen aurrean egonaldia egin zuten 2012an, protesta lez.

> MARKEL ONAINDIA

Gazteen lokalen erabilera arautzeko ordenantza idatziko du udalak, eta horretarako erabiltzaileen iritzia jakin gura dute. 2012an abiatu zuten arautegia egiteko saiakera bat, baina kritiken ondorioz, aurrera egin barik geratu zen. Oraingoan, partaidetza prozesu bat ipini dute martxan. Prozesua gidatzeko PH+ enpresa kontratatu dute.

Udalaren arabera, 60 bat lokal daude Durangon. Ordenantzagaz, “durangarren beharrei ahalik eta hoberen erantzutea” gura dute. Erabiltzaileak ez ezik, lokalen jabeak eta auzotarrak ere hartuko dituzte kontuan. “Hortaz, komeni da ahalik

eta durangar kopuru handienak parte hartzea”, esan du Mari Jose Balier hirigintza zinegotziak. Lehenik, diagnostikoa landuko dute: ikastetxeetan, auzo-elkarreetan edo udaleko teknikari eta kargudunekin, adibidez. Diagnostikoa parte hartzeko izena www.phpositivo.com webgunean eman daiteke, eta inkesta bat ere badago, hilaren 30a baino lehen aurkeztu behar dena. Diagnostikoaren ostean, otsailaren 20an, proposamenak landuko dituzte tailerrean.

Baina ez da gaiaz galdetzen den lehenengo aldia. 2012an ordenantza kritikatu zuten 360 erabiltzailek, eta neurri batzuk gehiegizkoak zirela esan zuten.

Ia lokal guztiak itxi edo berriztu beharko zirela argudiatu zuten. Gainera, ez zuten ondo ikusi euren ez galdetzea. Bilduk deitutako informazio batzar baten ostean, antolatzen hasi ziren gazteak, eta protesta lez, lokal handi bat irudikatu zuten udaletxe aurrean. Ostean, EHUko ikasle talde batek partaidetza prozesu bat gidatu zuen, eta uztailean eman zituzten ondorioak. Esaterako, ordutegia zaratarentzako izatea gura zuten, ez lokala ixteko.

EHUko ikasle taldeak adierazi du ordutik hona ez dutela udalaren erantzunik jaso. Prozesu berriaren aurrean, euren lana defendatu dute. Gainera, gastua 60 eurokoa izan zela esan dute.

Emakume erasotutak babestu ditu Berdintasun Kontseiluak

Azken asteetan gertatutako eraso sexistak gaitzetsi dituzte aho batez

> M.O.

Azken asteetan Durangon, Abadiñon eta Ermuan jazotako eraso sexistak izan dituzte berba-gai Durangoko Berdintasun Kontseiluan. Gaitzespena eta arbuioa agertu, eta erasotutak izan direnak babestu dituzte. Aho batez adostu dute mezua kontseiluan, baita Berdintasuneko Udal Batzordean ere. Udalak dauzkan babeserako baliabideak erasotuen esku jartzeko prest daudela diote, gainera.

Bestalde, Plataforma Feministak antolatzen duen mobilizazioan parte hartzeko gonbit

egin diete herritar guztiei. Andra Marin izaten da kontzentrazioa, iluntzeko 20:00etan.

Berdintasun Kontseiluak adierazi du antzeko indarkeria kasu guztiak arbuiazen dituela

Durangoko eraso urtarri-laren 5eko goizaldean gertatu zen. Emakume batek eraso jasotzen zela jakinarazi zuen. Ertzaintza agertu eta bere bi-

kotekidea atxilotu zuen. Egun berean izan zen Ermukoa; andreak adierazi zuen bere bikote ohiak jo egin zuela. Abadiñon, berriz, abenduan jazo zen eraso, igerilekuan. Neska batek, dutxan zegoenean grabatu egin zutela salatu zuen Ertzaintzan. Kasu horretan, baina, Ertzaintzak ez du inor atxilotu.

Berdintasun Kontseiluak adierazi du antzeko indarkeria kasu guztiak arbuiazen dituela, berdin dela eraso fisikoak, psikologikoak, sexualak, ekonomikoak edo pribatutasunaren kontrakoak izan.

> ATXONDO

Xabier Urizar martitzenean geratu zen aske, 29 urte kartzelan eman ondoren

Zazpi kartzela ezagutu ditu, eta azken bost urteetan Cadizko Puerto de Santa Mariako espetxean egon da

> JOSEBA DERTEANO

Xabier Urizar Murgoitio euskal preso martitzenean irten zen kartzelatik 29 urte espetxean eman ondoren. Urizar atxondarra da (Arrazolakoa), eta Arrasaten ere bizi izan da.

Preso eman dituen ia hiru hamarkadetan zazpi kartzela ezagutu ditu: Baiona, Po, Herrera de la Mancha (Ciudad Real), Valdemoro (Madril), Tenerife, Jaen eta Puerto de Santa Marian (Cadiz). Urterik gehienak azken hiru kartzeletan eman ditu: bederatzina urte Tenerifen eta Jaenen eta bost urte Cadizen. Cadizeko kartzelatik irten zen martitzen goizean eta bertan zain izan zituen lagunak eta senideak.

Itzulerako bidean, autoan ordubeteko bidea eginda zutela, “beren-beregi beragatik Guar-

dia Zibilaren kontrol bat” ipini izana salatu dute Murgoitiori laguntzera hara joandakoek.

Kondena osoa beteta

Gaur egun 59 urte ditu Xabier Urizar Murgoitio eta zigor osoa bete ostean geratu da kalean. *Parot doktrina* aplikatu behar zioten, baina bertan behera geratu denez lege hori, aske utzi dute. Lagun eta senitartekoen arabera, espetxean lan eginez penak murrizteko lortutako egunak kendu egin izan dizkiote.

Baiona, Po, Herrera de la Mancha, Valdemoro, Tenerife, Jaen eta Cadizko kartzeletan egon da

> ELORRIO

Gerediaga-Elorrio autobideaz informatzen

> M.O.

Bizkaiko Foru Aldundiak bulegoa zabaldu du Gerediaga-Elorrio autobideko obren inguruan informatzeko. Berrio-Otxoa kalean dagoen bulegoa astegunetan egongo da zabalik, goiz eta arratsalde. Azaldu dute maketa bat eta elementu grafikodun panel bat ipini ditzutela ikusgai.

Aldundiak bulegoa zabaldu du Gerediaga-Elorrio autobideko obren inguruan informatzeko

2012an hasi ziren errepide berria egiteko obrak, eta 2016an amaitzea espero dute. N-636 errepideko trafikoa arintzea lortu gura dute horrela.

Lur mugimendu handia eragin du proiektuak. Eta Atxondoko Udalak salatu du irregulartasunak egon direla obretan, eta hainbat auzotarrek euren kexa adierazi dutela.

> ZALDIBAR

Kiroldegiko teilatua konpontzeko 12.000 euro

> I.E.

Abenduko haizeteak apurtu zuen kiroldegiko teilatua konpontzeko 12.000 euroko aurrekontua atondu du Zaldibarko Udalak. Teilatuaren 30 metro karratuko azalera altxatu zuen urte amaierako haizeteak, eta orain euria sartzen da barrura.

Hori dela eta, obra egingo dute, arazoa lehenbailehen konpontzeko. Izan ere, azken asteetan ikastetxeak erabili izan du kiroldegia, zelaiaren parte bat erabiltzerik izan ez duten arren. Baina laster konpondu ezean, asteburuetan bertan izaten dituzten partiduak jokatzea

Laster konpondu ezean, asteburuetan izaten dituzten partiduak jokatzea zaildu dezake egoerak

zaildu dezake egoerak. Gobernu taldeak azaldu duenez, aseguruarekin negoziatzen dihardute, aseguru-etxea egin dadin obraren gastuaren kargu.

> DURANGALDEA

Etxebakoentzako aterpea, neguko eguraldi hotzari aurre egiteko babesleku

Lo egiteko lekua, dutxa, afaria eta gosaria eskaintzen ditu Amankomunazgoak Errotagainan

> MARKEL ONAINDIA

Tabirako Errotagaina aterpetxea etxebakoentzako babesleku da neguan. Eguraldi hotz eta hezearen etorreragaz kalean bizi direnen baldintzek okerrera egiten dute, eta Ibaizabal kooperatibako ostatuan Amankomunazgoak eskaintzen duen zerbitzua lagungarri zaie. Lo egiteko lekua, dutxa, afaria eta gosaria ematen dizkiete. Zerbitzua garatzeko 18.000 euroko aurrekontua gorde du Amankomunazgoak aurtun, eta diru horregaz Errotagaina aterpetzeko gela bat alokatu du hamar etxebakorentzat.

Zerbitzuak bi eratako erabiltzaileak dauzkala azaldu du Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentek. Alde batetik, hara eta hona bizileku finkorik barik dabilzanak, beste norabaitera bidean Durangaldea zeharkatu behar dutenak. Eta, bestetik, Durangaldean bertan bizi direnak, txaboletan edo eliz-

peetan, esaterako. Aterpetxean hiru gau jarraian pasatzeko aukera daukate etxebakoek, eta horretarako udaltzaingoan edo Gizarte Zerbitzuetan egin behar dute eskaria. Durangaldean bizi direnen kasuan, Gizarte Zerbitzuetako teknikariek euren egoera aztertzen dute, eta beste zainketarik behar duten edo ez ikusten dute. Hori gertatzen da gaixorik daudenekin, adibidez. Kasu batzuetan negu osorako baimena ere jaso dezakete.

Aterpetxera heltzean dutxatzeko aukera daukate. Afaltzeko salda edo zerbait beroa edukitzen dute normalean, eta, gaua pasa ostean, kafesnea ematen diete gosaltzeko.

18.000 euroko aurrekontua
Duela bospasei urte Durangoko Udalak sortu zuen zerbitzua. Baina iaz Amankomunazgoak hartu zuen bere gain, gainontzeko herriei eskaintza bate-



Aterpetxean hamar lagunentzako lekua dauka gordeta Amankomunazgoak.

ratzeko asmoz. Beraz, inguruko herrietan laguntza bila dabilzan etxebakoak ere bertara bideratzen dituzte, egoerak hala eskatuz gero behintzat. Baina gehienak Durangon agertzen dira, eta udaltzainek hartzen dituzte asko.

Martxoaren 31ra arte

Joan zen azaroan zabaldu zuten zerbitzua, eta Amankomunazgokoek iragarri dute zerbitzua

Errotagaina aterpetzeko hamar lagunentzako gela bat alokatzen du Amankomunazgoak

datorren martxoaren 31ra arte eskainiko dutela. Amaitu bitartean ez dute erabiltzaile kopuruaren berri emango, baina hotz handiak etorri arte ez da kopurua oso altua izango. Izan ere, eguraldi gogorretara itxaroten dute askok, euren txokoa utzi eta zerbitzua aprobetxatzeko.

Iaz, 79 izan ziren neguko hotzari aurre egiteko aterpetxearen zerbitzua babesleku lez erabili zutenak.

Euskara praktikatuko dute puntua egiteko aitzakiagaz

Berbalagun egitasmoko talde berrietan eskulanean jardungo dute puntua eta kakorratzaren bidez

> M.O.

Euskara praktikatzea, puntua eta kakorratza egiten den bitartean. Hori da AEK-k Berbalagun egitasmokoaren inguruan aurkeztutako nobedadea. Talde berrietan parte hartuko dutenek eskulanean jardungo dute puntua eta kakorratzaren bidez, baina euskaraz berba egiteko aitzakia bat izango da hori. AEK-ko arduradunen ustez, aukera ona izan ahal da, artile eta orratzagaz lan egitea gustuko izanez gero. Parte-hartzearen abantailak aipatu dituzte: "Elkarri irakatsi, ideiak trukatu edo puntu berriak egiten ikasi", adibidez.

Jarduera honetarako taldeak sortu daitezela gura dute Abadiñon, Berrizen, Durangon, Elorrian, Iurretan eta Zaldibarren. Izena emateko bide bi eskaini dituzte antolatzaileek: 639 400 786 telefonora deitu edota durangaldea@aek.org helbide elektronikora idatzi.

Taldea sortu dadila gura dute Abadiñon, Berrizen, Durangon, Iurretan eta Zaldibarren

> GARAI

Arrakasta eduki dute herriari buruzko bisitek

Zubiaurre familia hari lez erabili zuten bisitetan

> M.O.

Joan zen asteburuan Garai ezagutzeko bisitak antolatu zituz-

ten Garaiko Udalak eta Gerediaga Elkarteak. Zapatuan euskaraz eta domekan gaztelaniaz,



Bisita egin zuten partaideak, zapatuan.

bisitaldi bi egin zituzten, eta guztira 84 pertsonak parte hartu zuten. Hasieran aurreikusitako kopurua gainditu zuten horrela. Gontzal Sarrigoitia alkateak adierazi du arrakasta eduki duela ekimenak, eta, horren adibide da hainbatek bisita berriro egingo ote den galdetu dutela.

Garai ezagutaraztea zen helburua, eta Zubiaurre artisten familia hari lez erabili zuten. Elizabarrin hasi zuten ibilbidea, eta Valentin eta Ramon Zubiaurre margolarien koadroak ikusi zituzten, udaletxera joanda. Gero Zubiaurretarren etxea zena bisitatu, eta handik San Migel elizara jo zuten, beste koadro batzuk ikusteko. Hilerrian amaitu zuten ibilbidea, bertan daude eta lur emanda anaiak, eta intelektuala izateagatik ospetsu egin zen Pilar arreba.

Solaguren kalea, 3
Tel.: 946 814 474
Faxa: 946 215 374
E-mail: urtiaga.sl@terra.es
MATIENA ABADIÑO

urtiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZI,
BEROGAILU, AZULEJU, ZOLADURA,
TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOI
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2. ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

> ABADIÑO

Erralderen zorra bankuekin negoziatuko du udalak

400.000 euroko zorra dauka Abadiñoko Udalak, Erralderen desegiteak eraginda

> ITSASO ESTEBAN

Erralde hiltegia gauzatzeko sozietatea sortu zutenean eskaturiko kredituen ordainketa zelan egin banketxeekin negoziatzen dabil Abadiñoko Udalak. Horrela azaldu du Jose Luis Navarro alkateak. Sozietatean eduki zuen partearen arabera, eta ia Erralde likidatzeko prozesua abiatuta, 400.000 euroko zorra dauka Abadiñok bankuekin. Izan ere, hiltegia eraikitze behar zen lursaila erosteko kreditua eman zuten bankuek. Sozietatearen akziodun nagusia zen Abadiñoko Udalak, eta Erralderen desegiteak eragindako zorrik han-

diena ere udal horrek dauka. “Hasieran zorra ez genuela ordainduko adierazi genuen, baina ikusi dugu, aholkulariekin egoera aztertuta, zorra onartu eta ordainketa era negoziatu beste aukerarik ez daukagula”, dio alkateak. “Langile eta abeltzainekiko ordaindu genuen zorra, eta ahotan darabilguna batuta, Erralderen itxieragaz 500.000 euro galduko ditu Abadiñoko Udalak: Abadiñorentzat galbidea izan da proiektu hori”.

“Argi dago zorra ordaindu behar dugula: gure erantzukizuna da”, dio Eneko Etxebarrria EAJko bozeroaleak ere. “Zorra

atzeratu zitekeela esaten zutenean, txarto aholkatuta zegoen gobernu taldea”.

Jose Luis Navarro: “Zorra onartu eta ordainketa era negoziatu beste aukerarik ez daukagu”

Gaiaren inguruko “informazio askorik” ez dietela transmititu adierazi du, bestalde, Aitor Azueta Bilduko zinegotziak. Bide beretik jo du Etxebarriak ere: “Dakigun bakarra da banketxeekin berba egiten dabilazala”.



Erralderen desegiteak eraginda, zor handiena Abadiñoko Udalak du.

Matienako trafikoaren egoera aztertuko dute

Enpresa bati eskatuko dio udalak ikerketa egitea



Auzotik igarotzen den ibilgailu kopurua asko hazi dela dio udal gobenuak.

> I.E.

Abadiñoko Udaleko gobernu taldeak iragarri du Traña-Matienako auzoko trafikoaren egoera aztertzeko ikerketa bat egingo dutela. Enpresa pribatu bati egingo diote auzo horretako zirkulazioaren eta aparkalekuen egoera aztertzeko enkargua.

Azken urteetan Traña-Matienatik igarotzen den ibilgailuen kopurua asko hazi dela uste du gobernu taldeak, eta azpimarratu dute bereziki Laubideta eta

Trañabarren kaleetan igarotzen dela joera hori. Jose Luis Navarro alkateak aurreratu du, geroa ibilgailuen trafikoa gutxitzeko neurriak hartu behar badira, ez dutela zalantzarik egingo, baina horretarako datu errealak behar dituztela mahai gainean.

Traña-Matienan trafiko handieneko orduak eta gunerik korapilotsuenak zeintzuk diren aztertuko dute, “herritarrak hiriguneetan lasai eta gustura egotea” helburu hartuta.

arratsaldean, eta ogiaren eta ortuarien bedeinkapena egin dute meza guztietan, urtero legez.

Errepetizino Domeka ospatuko dute, bestalde, urtarrilaren 19an, Urkiolako Santutegian. Egun horretan, 12:00etan meza nagusia izango da, eta 13:00etan eta 18:00etan ere elizkizunak eskainiko dituzte.

Urteroko ohituran, bestalde, Abadiñoko dantzarien eta txistularien emanaldia izango da Urkiolan, etzi, eta San Anton eguneko errifaren zozketa ere egingo dute eguerdian.

Neguko San Anton jaiak ospatuko dituzte Urkiolan

> I.E.

Urkiolako lehen zaindariaren, baserri munduaren eta abereen, eta hirugarren adinekoen zaindariaren eguna, “San Anton zaharraren neguko eguna”, ospatuko dute domekan, Urkiolako Santutegian. Gaur ere meza eman dituzte eguerdian eta

> IURRETA

Ur-sare nagusiagaz lotuko dute Orozketa

Ekainerako edateko uraren hornidura sarea handitzeko lanak amaituta egotea aurreikusi dute

> AITZIBER BASAURI

Orozketako etxebizitzak edateko uraren hornidura sare nagusira lotuta egongo dira uda sasoiari; sei hilabeteko epea du eta Probisa enpresak ur-hornidura sarea handitzeko proiektuaren lanak amaitzeko. Asteon dira hastekoak bigarren eta azken faseko beharrok, eta 260.000 euro inguruko inbertsioa beharko dute. Urrian atera zituen lan horiek enkantera Iurretako Udalak, eta 17 proposamen ekonomiko jaso zituen.

Durango eta Iurretako ur sareak batzen diren tokitik Gibelako biltegiraino (Orozketa) doan edateko uraren hornidura sarea berriztea izan du helburu Iurretako Udalak, eta, horrek duen luzeraren eraginez, bi fasetan egin behar izan dituzte lanak. Lehenengo fasea 2012ko azaroan bukatu zuten, eta ia 234.000 euro inbertitu behar izan zituen uda-

lak. Orain hasteko diren lanak, berriz, ekain inguruan amaitzea aurreikusi dute.

Biltegian tratatutako ura

Orozketarrek bertako iturburu batetik hartzen dute ura oraindik ere: “Kalitatezko ura da hori, bertako ur-biltegian tratatutako ura da-eta. Hala ere, inoiz ur uherra edo zikindutakoa irteten

Asteon dira hastekoak azken faseko lanak, eta 260.000 euro inguruko inbertsioa beharko dute

da etxeetako txorrotatik, batez ere eguraldi txarraz. Hori ekiditea lortuko dugu Orozketa ur hornidura sarera lotuta”, azaldu du Iñaki Totorikaguena alkateak.

> MALLABIA

Konposta zelan egiten den irakatsiko dute

Datorren egunean izango da ikastaroa

> JONE GUENETXEA

Mallabiko Udalak konpostaren aldeko apustua egin du. Urtarrilaren 23an autokonposta egiten ikasteko ikastaroa eskainiko du Vermicam enpresako teknikariak kultur etxean, 18:30ean. Lur

zati bat duten pertsonen konpostatzen ikasteko aukera izango dute. Debabarreneko Amankomunazgoaren eta Gipuzkoako Aldundiaren laguntzagaz Mallabiko Udalak autokonpost eta auzokonpost kanpainak jarri

Danborrada, baba-jana eta bakailao txapelketa

> A.B.

Bakixan auzoko jaiak hasiko dituzte gaur, Donien-atxa altxatuta. Hitzordua 21:00etan egin dute, eta, gero, txokolatea edatera elkartuko dira. Bihar, tiro txapelketagaz hasiko dute eguna, 11:30ean, eta, eguerdian baba-jana izango dute auzokoek. Bakailao txapelketan prestatutakoa 21:00etan aurkeztu beharko dute parte hartzaileek, eta, guerdian, danborrada abiatuko dute.

Etzi, briska txapelketa eta Maiztegi Herri Eskolako dantza taldearen saioa izango dira 17:00etan, eta txokolatada izango dute bertaratutakoek gero.

San Sebastian eguna

Astelehenean, San Sebastian egunez, meza nagusia hasiko da 12:00etan, eta, 18:00etan, igel txapelketa. Hurrengo astebururako, berriz, asto-probak eta Luhartzekin erromeria antolatu dituzte. Dantzari eta bertsolariek ere jardungo dute.

ditu martxan. Mila Mondragon alkateak dioenez, “helburua da organikoa Mallabian bertan gelditzea”. Konpost sistema erabiltzen duten herritarrek, gainera, %15eko hobaria izango dute zaborraren fakturan.

Herrigunean auzokonpostarako lau gune jarri dituzte: Ansoagan, Intxaurtin, Arteizen eta Mallabarrenan. Gune horiek datozen egunetan martxan jarriko dituzte, eta erabiltzaileek bertako giltzak izango dituzte.

EPOCA

ERREFORMAK - SUKALDEAK - BAINUGELAK -
ALTZARIAK - DEKORAZIOA



Zuk nahi duzun etxea
egiten lagunduko dizugu.

www.epocasukaldeak.com



Tel.: 946 472 012
epoca@epocasukaldeak.com

Madalenoste, 7
48200 Durango



> MAÑARIA

“Beharrezkoa zen jende nagusiaren istorioak gordetzea”

Mañariko Ahotsak proiektuagaz herriko hizkera eta ohiturak gorde dituzte



Mañariko Ahotsak proiektuaren aurkezpenean udal aretoa bete zen.

> MARKEL ONAINDIA

24 elkarriketa, 24 istorio eta hizkera jasotzeko. Mañariko Ahotsak proiektuagaz herriko euskara eta bizi ohiturak artxibatu gura izan dituzte, ondare hori gerora galdu ez dadin. Horrela azaldu du Ainara Areitio zinegotziak: “Beharrezkoa zen jende nagusiaren istorioak gordetzea”. 24 pertsona nagusik euren bizitakoak kontatu dituzte

grabagailuaren edo kameraren aurrean, eta horrela, etorkizunerako artxibatuta geratu da ondare hori.

Proiektu honetako lehenengo urratsak Igone Ikobaltzetak eta Maria Luisa Gonzalez de Audikanak eman zituzten 2007an. Herrian antolatutako ibilaldi batean solasean ibili ziren zenbait auzotarregaz, eta konturatu ziren nagusien ekarpena inte-

resgarria izan ahal zela herria hobeto ezagutzeko. Ideia horretatik abiatuta, bospasei elkarriketa egin zituzten; eta duela hiru urte ipini zen martxan bigarren atala. Ahotsak egitasmoko ki-deek –beste hainbat herritan ere antzeko proiektuak garatu dituztenak– lan horregaz jarraitzeko asmoa agertu zuten, eta gainerako elkarriketak grabatu zituzten. Guztiak daude

bilduta *www.ahotsak.com* webgunean, bideo edo testu formatuan. Pasadizo ugari topatu daitezke bertan: gerra sasoikoak, txikitako bizipenak, edo lehengo Mañariari buruzkoak, adibidez.

Aurkezpena

Urtarrilaren 5ean jendaurreko aurkezpena egin zuten proiektuko sustatzaileek. Bertan egon ziren udaleko ordezkariak, Ahotsak egitasmoko kideak, elkarriketatutak eta hasierako lanean ibilitako Ikobaltzeta eta Gonzalez de Audikana ere bai. Ikobaltzetak esan du ilusio handiz hartu zuela gonbidapena, eta aretoa beteta ikustea pozgarria izan zen beretzat.

Guztiak daude bilduta ‘*www.ahotsak.com*’ webgunean, bideo edo testu formatuan

Baina, lanak jarraipena izan ahal duela dio Ikobaltzetak. Esaterako, Amerikara joandakoak asko izan zirela azaldu du, eta artzainena lez galtzearen ondorioz ogibideak ere gogoratu ditu. Istorio horiek gordetzeko beharra dagoela uste du. “Oraindik badago zer jaso”.

> IZURTZA

Pala txapelketa amateurra jokatu dute otsailean hasita

> JOSEBA DERTEANO

Palista profesional izandako Miguel Alvarezen ekimenari esker, otsaileko lehenengo astetik aurrera amateur mailako pala txapelketa egongo da jokoan Izurtzako pilotalekuan. Aspal-diko ohitura bat berreskuratzea du helburu, orain urte asko ere –1989an azkenengoz– pala txapelketak izaten zirelako herrian.

Txapelketa binaka izango da eta bikoteak maila bitan banatuko dituzte, bakoitzaren mailaren arabera. Horrela, partidu orekatuagoak ikusi ahalko dira. Ohiko zulodun palagaz eta gomazko pilotekin jokatu dute txapelketa. Maila bakoitzeko lehenengo lau sailkatuentzako sariak egongo dira. Maila bakoitzeko irabazleek txapela, garai-kurra, ardo botila bana eta diru saria (izen-emate kopuruaren arabera) jasoko dute.

Urtarrilaren 29ra artekoa da izena emateko epea eta telefono honetara deituta eman daiteke: 653 056 085. Izen-ematea 20 euro izango da.

> BERRIZ

Olakuetarrak San Antonio jaietan murgilduta daude atzodanik

Hiltegixek 1980ko hamarkadako jaia antolatu du, bertso bazkari eta guzti

> AMAIA UGALDE

Atzo Donien Atxagaz tabernaz taberna ibili eta gero, tente dago Olakuetan jaietako sinboloa. Asteburu bete dute aurretik olakuetarrek. Gaur dute San Antonio eguna, eta iluntzean sagardotegi ibiltaria eta odoloste-jana izango dituzte, adibidez. Gaztetxean Eratu eta McOnak taldeen kontzertuak egongo dira, eta biharko 1980ko hamarkadako jaia antolatu du Hiltegixek.

Duela hogeita hamar urteko arropak soinean, Onintza En-

beita eta Miren Amuriza ibiliko dira kantari gaztetxeko bazka-

Duela 30 urteko arropak soinean, Miren Amuriza eta Onintza Enbeita izango dira gaztetxean

rian, Maite Berriozabalek ipinitako gaiei erantzuten. Iluntzean, erromeria izango dute plazan, Luhartzegaz, eta gaua luzatu

gura duenak gaztetxean DJ Bull izango du.

Domekan, goizetik, Durangaldeko Fruitu eta Barazki Erakusketa egongo da probalekuan, eta artisautza azoka pilotalekuan. Baserriko oilasko dastaketa ere egongo da, eta Iremiñe dantza taldeak ekitaldia eskainiko du. Arratsaldeko 19:00etan, Durangoko Ganso&Ciak gidatuta, zirko eta umore saioa egongo da Kultur Etxean. Astelehenean, berriz, nekazal olinpiadak izango dituzte pilotalekuan.



Iremiñe dantza taldeak domekan emanaldia eskainiko du, 13:00etan.

Erralderen zorra hamar urtean ordainduko die udalak bankuei

> A.U.

Bere garaian lurra erosi eta hiltegiaren proiektua egiteko mailegua eskatu zuten Erralderen barneko udalek, eta, orain, sozietatea likidatuta, banketxei dirua bueltatzeko ordua da. Berrizko Udalak guztira 334.000 euro ordaindu beharko ditu, eta BBVA eta Laboral Kutxagaz zorren kitapena hamar urtean egitea adostu du, %5eko interesarekin.

Banketxei dirua bueltatzeko 334.000 euro ordaindu behar ditu Berrizko Udalak

Sozietatea likidatu eta gero, Erralde osotu duten udalak dira hiltegirako ziren lurren jabeak. Berrizko kasuan, lursailen %16 da Berrizko Udalarena. Guztira 87.000 metro karratuko lursaila da, eta, berez, lehen sektoreko ekintzetara bideratutako lurra dira. Orland Isoird Berrizko alkateak adierazi duenez, lurjabe diren udalek merkatuan inbertsoreak topatzeko asmoa agertu dute.

Segurtasun neurriak indartu dituzte Haurreskolan

> A.U.

Ate nagusia aldatu eta alarma ipiniko dute Haurreskolan, iazko ikasturte amaieran izan zuten lapurreta dela-eta. Maiztaren amaieran sartu ziren lapurrak Haurreskolara. Ate guztiak indarrez zabaldu, eta hainbat material ostu zuten: ordenagailu eramangarria, disko gogor bi, argazki kamerak eta telebista.

Barruko ateak aldatuta dituzte honezkero, eta material gehiena ikasturte hasieran erosi zuten Haurreskolako arduradunek. Ate nagusia aldatzea falta da, apurtu zutenetik hona tolestuta dago eta. Alarma bat ere ipiniko dute Haurreskolan. Inbertsio horiek biak egiteko aurrekontu aldaketa egin dute asteen.

Kirol instalazioak

Pilotalekuan, bestalde, bideo kamerak ipintzea erabaki du Berrizko Udalak, azkenaldian materiala apurtuta agertu delako. Berrizburun, futbol zelaiaren lapurretak izan ziren bere garaian, eta ezkaratzean detektagailu txiki bat eta kable-sarea kontrolatzeko sistema bat ipiniko dituzte, segurtasuna hobetu guran.

> **DURANGALDEA ASTEON**

Trenak 83 urteko gizon bat harrapatu du Berrizko Okango auzoan Herenegun ezbeharra gertatu zen Okango auzoan, Berriztik Zaldibarrera bidean. Trenak 83 urteko gizona harrapatu zuen, eta helikopteroan eraman zuten Gurutzetako ospitalera. Ez dakite istripuaren arrazoia zein izan zen; gizona trenbidean ei zegoen tren Zaldibarretik heltzean. Kolpea jasotzean ez zuen konorterik galdu. Tren zerbitzua ordu eta erdian egon zen geratuta.	‘D txartela’ kanpainako bonuak amaitu direla iragarri dute Astebetean agortu dira <i>D txartela</i> kanpainako 1.500 bonuak. Bost euro ordainduta, hamabost euroko balioa dauka txartel horrek dendetan erosketak egiteko. Dendak Bai elkarteko Guillermo Oarbeaskoa pozik agertu da. “Kanpaina oso erakargarria da, Durangoko dendetan egiten den erosketa kopurua igoko duena”.	Abadiñon 8.000 euro daude euskara ikasleei bideratuta Abadiñoko Udalak 8.000 euro banatu ditu 2012-2013 ikasturtean euskara eskolak hartu dituztenen artean. Iazko irailean egin zituzten diru-laguntza eskaerak, eta guztira 49 abadiñarrek jaso dute laguntza hori. Udalak azaldu du egunotan dabiltzala ordainketak egiten.	Auzorik Auzo ibilaldia egingo dute bederatzigarrenez Urtarrilaren 26an Auzorik Auzo ibilaldia egingo dute Abadiñon. Aurtengoa bederatzigarren edizioa izango da dagoeneko. Goizeko 09:00etan irtengo dira Gerediagatik eta Zelaietan amaituko dute, herriko zenbait auzo igarota. Hogei kilometro inguruko ibilbidea izango da, eta antolatzaileek esan dute 13:30erako heltzea espero dutela.
---	---	--	--

> **OTXANDIO**

Hileta zibilak egin ahal izateko ordenantza onartu du udalbatzarrak

Gimnasioan, bolalekuko aretoan eta bolaleku ondoko parkean egingo dira hiletak

> **JOSEBA DERTEANO**
Abenduko azken udalbatzarrean onartu zuten hileta eta omenaldi zibilak egin ahal izateko lokal eta espazio publikoen erabilera eta baimenak erregulatzen dituen ordenantza. Ordenantzan jasotzen denez, udalak “geroz eta eske handiagoa daukan behar sozial honi” erantzun gura dio. Hileta zibilak egiteko hiru gune bideratu dituzte: gimnasioa eta bolalekuko aretoa, toki itxian egin gura dutenentzat, eta bolaleku ondoko parkea, aire librean.

Hileta eta omenaldi zibilak aste-ko edozein egunetan egin ahalko dira, 09:00etatik 14:00etara eta

Udalak “geroz eta eske handiagoa daukan behar honi” erantzun gura dio ordenantzagaz

17:00etatik 20:00etara. Eskaerak udaletxeko erregistroan aurkeztu behar dira, hainbat daturekin

batera: eguna eta ordua, tokia, eta izen-abizenak, adibidez. Eskatzaileak udal eraikinak erabiltzeko indarrean dagoen tasa ordaindu beharko du, udaletxean bertan edo transferentzia bidez: Otxandion erroldatuta daudene-
50 euro ordainduko dituzte aste barruan eta 70 euro asteburu eta jaiegunetan; Otxandion erroldatuta ez daudene-
100 euro astegunetan eta 120 euro asteburuetan eta jaiegunetan. Eskatuz gero, udalak megafonia, mahaia eta aulkiak utziko ditu.



Bolalekuko aretoa eta ondoko parkea dira hileta zibilak egiteko tokietako bi.

Igerilekuen kudeaketa lehiaketara aterako dute

Udaberrian aterako da igerilekuen kudeaketa lehiaketara; hiru urtean luzatuko da kudeaketa

> **J.D.**
Aurtengo udaberrian igerilekuen kudeaketaren esleipena lehiaketa publikora aterako du Otxandioko Udalak. Hiru urterako esleipena izaten da, urtez urte berritzen dena; beti ere, enpresak kudeaketa baldintzak bete baditu eta kontrako iritzirik sortzen ez bada. Udal ordezkarien esanetan, aukera ona da herritarrek lan bat lortzeko, baina argi utzi dute zerbitzu profesionala ematea bermatzen duten proposamenak aurkeztu beharko direla. Beraz,

udalak deia luzatzen die esleipen honetan interesa izan dezaketen herritarrei “lehenbailehen udaletxera jo eta baldintzei buruzko informazioa eskatu” dezaten. Azken hiru urteetan Aiteko S.L. enpresak kudeatu ditu igerilekuak.

Interesa izan dezaketen herritarrei udaletxera jo eta informazioa eskatzeko deia luzatu die udalak

Isunak jartzen hasi zirenetik “hobeto” errespetatzen dira oinezkoen guneak

Arazorik larrienak, batez ere, erdigunerako sarreretan izaten ei dira

> **J.D.**
Horretara bideratuta ez dauden tokietan aparkatzen zuten autoei isunak ipintzen hasi ziren iazko azaroaren erdian. Udalak erabaki hori hartu zuen, hainbat kontzientziazio kanpaina eginagatik, batez ere eremu jakin batzuetan txarto aparkatutako autoek oinezkoen joan-etorriak eta oinarritzko zerbitzuen (zabor bilketa, adibidez) jardunbidea oztopatzen zutelako. Ertzaintza ari da isunak jartzen, euren eskumena delako. Santi Uribe alkatearen esanetan, “arazo gehien zeuden tokietan orain hobeto errespetatzen dira oinezkoentzako eta herriko zerbitzuentzako beharrezkoak

“Seinaleztapena hobetu nahi da, dudako tokietan aparkatzeko aukeren gainean azterketa eginda”

diren eremuak”. Dena dela, puntu horretara heldu behar izana “pena bat” dela onartu du. Autoak txarto aparkatuta dauden kasuak herri osoan

agertzen diren arren, arazorik larrienak, batez ere, erdigunerako sarreretan izaten ei dira: Elixoste aldean, Uribarrena sarrera inguruan, Mainerrota auzoan eta Urigoienako sarreran. Udaletxera hainbat herritar joan izan da toki jakin batzuetan aparkatzea legezkoa den edo ez jakiteko; herritar batek jasotako isunaren gaineko informazioa ere eskatu du. “Gainerakoan, ez dugu kexarik jaso udaletxean”. Aurrera begira, “dudak sortu diren eremuetan aparkatzeko aukeren azterketa egin, eta seinaleztapena hobetu nahi dugu”.



Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta
Tel.: 946 205 187 - Faxe: 946 205 194

► Berbaz

Josu Novo | Psikologoa eta Esperientzia Institutuko irakaslea | Portugalete, 40 urte

“*Nik azalpenak eman ditzaket, baina oinarritzkoena ikasleen bizi esperientzia da*”

Ikastea bizi osoan egiten den zerbait dela-eta, 55 urtetik gorako hainbat lagunek ‘Gaur egungo munduan bizitzeko gakoak’ ikastaroa hasi dute Behargintzan. Irakasleetako bat Josu Novo izango dute; berbagai izango ditu emozioak eta komunikazioa, besteak beste.



> AMAIA UGALDE

Munduan azken urteotan egon diren aldaketak, Durangaldeko historia, pertsona nagusiek gizartean duten papera... Gai horiek lantzen dituzte Esperientzia Institutuko ‘Gaur egungo munduan bizitzeko gakoak’ ikastaroan. Ikastaro barruan, garapen pertsonala eta giza harremanak ere landuko dituzte Josu Novo Gardabera taldeko psikologoaren eskoletan.

Laugarren urtez parte hartuko duzu Esperientzia Institutuan. Zer moduz orain artekoan? Desberdintasun handia dago taldeen artean. Ez daukate zerikusirik. Datorren jendearen araberakoa izaten da ikastaroa, hitzaldietara hurreratzeko daukaten arrazoien araberakoa.

Perfil askotako jendea dago, orduan?

Harritu egiten nau zenbat gizon datorren. Normalean, nagusientzako antolatzen diren jarduerak kulturaletan-eta, emakumeak izaten dira gehiengoa. *Egungo mundua ulertzeko gakoak* ikastaroan parte hartu izan duten gizon gehienak ikasketadunak dira edo erantzukizun nahiko handiko lanpostuak izan dituz-

te. Emakumeen artean heterogeneotasun handiagoa dago. Oso aktiboak dira, baina emakume askok ez dute ikasketak egiteko aukerarik izan; horren arantzatzkoa geratu zaie; jakingura itzela daukate eta ahal izan dutenean denbora atera dute irakurtzeko, zer edo zer ikasteko... Ikasteko gogo hori datozen guztiek dute, edozein perfiletako gizon edo emakume izan.

Zure eskoletan giza harremanak, emozioak eta komunikazioa lantzen dituzue, besteak beste. Intereseko gaiak dira eurentzat?

Bai, noski. Beste gai batzuk, historia edo globalizazioa, adibidez, interesgarriak dira, baina justu nik ematen ditudan gaiekin etxekoari buruz egiten dugu berba; euren barruari buruz, euren emozioei buruz, zelan ikasi duten emozioak adierazten edo isiltzen. Denok daukagun horri buruz hitz egiten dugu.

Eskola parte-hartzaileak dira?

Gelan eboluzio bat ikusten dut. Hasieran, postura fisikoarekin ere “ea zer datorren” esaten dutela ematen du; eskolako lehen egunaren antzekoa da. Ille urdina eduki arren, imajinatu

ditzaket eskolan. Ea zer irteten den ikustera datoz. Taldeari galderak botatzen ahalegintzen naiz, eta apurka debate irekien aldeko giro bat sortzen da. Azkenean, nik teoria eta definizio batzuk ematen ditut, aholkuak,

“

Emakume askok ez dute ikasketak egiteko aukerarik izan, eta arantzatzkoa geratu zaie; jakingura itzela daukate”

gomendioak, baina oinarritzkoena euren istorioa da, eurek bizi izan dutena. Pertsona guztiek egin dezakete ekarpenen bat, denok daukagu taldean partekatze moduko esperientzia eta jakinduria. Hori da aberastasun handiena: taldea bera.

Gaiok ikasgelan lantzea nobedadea izango da eurentzat.

Bai. Harritu egiten dira ikustean diziplina bat dagoela, teo-

riak daudela eurek bizitza osoan sentitu dituzten gaiei buruz dihardutenak. Harremanetarako zailtasunak, besteei eman gura diegun irudia, beldur eta segurtasun eza, zelan jokatzeko dugun gatazka egoeretan... Ikusten dugu denoi gertatzen zaizkigun gauzak direla, eta horrek lasaitasun moduko bat ematen du. Ulertu egiten dute zer gertatzen zaien eta lasaiago daude. Beti saiatzen naiz askatasun pertsonalaren mezua bueltatzen; azken erabakia euren da. Obligazioen kultura oso barneratuta daukate, baina ezetz esateko aukera ere badaukate.

Euren belaunaldiaren ezaugarri bat da betebeharrak?

Adibidez, ikastarora etortzea bera. Hitzaldiren batera joan ezin badute, planteatu egiten dute ea izena emango duten. Beti esaten dute: “Nik izena ematen badut, joateko da”. Dena bizi dute erantzukizunaren ideiatik, lanaren ideiatik. Aisialdia ere bai.

Duela hiru-lau urte, Esperientzia Institututik Bizidun elkar-tea sortu zuten. Zu eurei laguntzen ibili zara eta jarraitzen duzu eurei hitzaldiak ematen.

Elkar-tea ilusio eta motibazio

handiagaz sortu zuten. Taldean oso gustura sentitzen ziren, hitzaldietan talde giro ona sortu zuten, eta horregatik, ikastaroa amaitzerakoan, elkartzen jarraitu gura izan zuten. Zer edo zer berezia sortu zen. Elkar-te izateko estatutuak eta burokrasia kontuekin ere egin dute topo. Aurten taldea antolatze modua eta helburuak definitzen ibili dira.

Zelan animatuko zenuke “hori ez da nire lekua” dioen jendea?

Bizidun elkartekoek eta ikastaroa egin dutenek esan didate inoiz, lagunei ikastaroa proposatu, eta “txorrada bat izango da, zertara joango naiz, bada, denbora galtzera?”, erantzun dietela. Beste batzuek agian beldurra dute: zer edo zer galdetuko ote dieten, taldean berba egin beharko ote duten... Lantzen den guztia zerotik lantzen da eta ez da zertan aurretiaz ezagutzarik eduki. Ikasgelan ez ditu inork berba egitera derrigortuko. Honek, azken finean, ez dauka eurek ezagutu duten eskolarekin zerkusirik. Libreak dira, eta ikastaroa ez bada eurek gura zutena, edo ez badaude gustura, utzi egin dezakete. Probatu dezatela, ez dute ezer galduko-eta.



JATETXE GIDA

ÑAM!



PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ
Tel.: 946 826 246

Eguneko menua. Karta. Domeka,
astelehen eta martitzen gauetan itxita.

ÑAM!



MENU BEREZIA

Sarrerakoak (2 aukeran)
Entsalada
Patata frijituak
Zatitutako txuleta errea
Postrea
Ogia eta edaria

60€
bikoteko
(BEZa barne)



JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ
Tel.: 946 824 077

Karta. Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.

ÑAM!



PLATERUENA Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4
Tel.: 946 030 300

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak. Askariak.



**Profesional onenak
zure zerbitzura!**

Lokaletik At: Durangaldeko musika talde gazteentzat zabalik dago Platerueneko oholtza

Urtarrilaren 24an abiatuko dute Platerueneko 2013ko Lokaletik At. Durangaldeko musika talde bi arituko dira ekimenaren lehenengo kontzertuan: Durangoko Bagdad eta Elorriko Amorr



Hemeretzi musika talde, Durangaldeko hamarnaka musikari gazte igaro dira 2012an Lokaletik At ekimena martxan ipini zutenetik hona, Durangoko Platerueneko oholtzatik. Ekimenaren helburua bertako talde hasiberri eta gazteei zuzenean aritzeko aukera eskaintzea da, eta eskualdeko zein inguruko taldeek ere zabalik izan dituzte Platerueneko ateak. Durangaldeko Krome, The Mockers, Pixontxis, Sugoi, En clave de dos, 11 ikusteko jaioak, Orion Child eta Damudot taldeek jo dute, esaterako, aurreko urteetako saioetan.

Lokaletik At ekimenean jo gura duten musika talde gazteek kultura@plateruena.net helbidera idatzita eman dezakete izena. Horrela egin zuten, urtarrilaren 24an bertan ariko diren Bagdad eta Amorr taldeko kideek ere.

Desertua, garagardoa, kaktusak eta musika gordina: Bagdad

Udazkenean elkartu zen Bagdad boskotea

Udazkenean batu ziren Asier Garate, Jon Perez, Urtzi Egi, Paul Baños eta Aritz Maldonado gazte durangarrak Bagdad izeneko proiektuan. Lehenago hainbat taldetan (Fision Boys, Sus Scrofa, Kanpai Julai, Midnight Murders, Konorterik gabe, Delirium Tren-Ez eta Puto Bastardo, adibidez) aritutakoak dira musikariok.

Lehenagotik elkar ezagutzen du boskoteak, eta, esan dutenez, sarritan egin izan dute berba talde bat sortzearen inguruan: “Tabernan edo kontzerturen batean elkartu, eta ‘noiz edo noiz horrelako zerbait egin behar dugu’ komentatu izan dugu sarri”.

Bagdad taldean “musika gordina, astuna, egitea da gure asmoa”, diote; eta egindakoa irudi batekin adierazi: “Deser-

tua, garagardoa, 40 gradu beroa, kaktusak...”. Hain justu, ideia horretatik datoz taldearen izena eta logoa.

“

Plateruena plaza handia delako urduri, baina gogotsu gaude”

Entsegu lokaleko giro ona islatu gura dute Bagdadekoek Platerueneko urtarrilaren 24ko kontzertuan: “Garagardoa edan eta ondo pasatzea da gure helburua”, adierazi dute. Emanaldiari begira “gogotsu eta urduri” daudela diote, “Plateruena plaza handia eta profesionala delako”.

Aurretik Fision Boys taldeak erabiltzen zuen lokalean entseatzen dute Bagdadeko kideek, eta horrek lehenengo pausoak ematea erraztu dio taldeari: “Lokala asteen lau orduz erabiltzeko aukera daukagu, eta doakoa da”. Musika-rien arabera, “musika nahiko hobby garestia da, eta doako lokal bat izatea aukera izugarria da”. Gainera, Plateruenean ez ezik, beste edozein gaztetxe edo tabernatan jotzeko prest daudela adierazi dute taldekideek.



Bagdad taldearen logoa.

Amorr: “Eskertzekoa, aukera oso ona da Plateruenean jo ahal izatea”

14 eta 16 urtegaz, duela bi urte eta erdi sortu zuten Amorr taldea Elorrion



Ezkerrean, Amorr taldeko hiru kide, asteen, euren entseatzeko lokalean. Eskuinean, Imanol, taldeko abeslaria.



Musikaren inguruan mugitzen oso gazterik hasi ziren Elorrio eta Atxondoko Amorr taldeko lau mutilak: gazteenak 14 eta nagusienak 16 urte zituela sortu zuten taldea, duela urte bi eta erdi. Xabi Azkarate, Asier Alejo, Julen Letona eta Imanol Tabera dira, orain, Amorr, eta lehenengo hirurekin batu gara asteen, euren entsegu lokalean.

Eurek konposatutako sei-zazpi punk-rock kanta dauzkate Amorrukoek, nahiz eta, momentuz, kontzertu gutxi batzuetan bakarrik eskaini ahal izan dituzten; datozen hiletan, maketa batean bildu nahi dituzte kantok. Gaztetasunari, euskararen zein Palestinaren egoerari, eta gaurkotasuna duten beste gai batzuei buruz kantatzen dute.

Platerueneko urtarrilaren 24ko kontzertuan, eurek sor-

turiko kantak, eta Ramones, Txapelpunk edo Deskontrolen bertsioak ere joko dituzte.

Orain arte, gaztetxe eta tabernetan jo dute, baina ez dute zuzeneko askorik eskaintzeko aukerarik izan. “Eskertzekoa, aukera oso ona da Plateruenean jo ahal izatea”, diote gazteek. Hala ere, antzokian jotzeak errespetua ematen diela ere onartu dute: “Agertokia ere, ohituta gaudena baino handiagoa da; eta inpresio apur bat egiten du jakiteak bertan nortzuek jo izan duten, eta nortzuk diren aritzekoak...”. Baina argi daukate: “Dakiguna jotzera joango gara gu, disfrutatzen”.

Kanta bizkorak zein lasaigoak ere gustatzen zaizkie: denetariko musika entzuten dute. Adibidez, Elorriko Iheskide edo Sermonds dituzte gogoko:

“Ederra litzateke eurak dauden lekura ailegatzea”, diote. Arriola antzokiaren behealdeko lokaletan entseatzen duten eta esperientzia handiagoa duten taldeen jarduna entzutera ere joaten dira: “Eurek egiten zebiltzana entzuteko atera izan gara inoiz pasillora”.

“

Datozen hiletan maketa bat grabatzea gustatuko litzaiguke”

Martxoko Durangoko Greatest Hits jaialdian parte hartu gura dute, eta Elorriko gaztetxearen urteurrenoko bertsioen gauean ere ariko dira.

> IKUSKIZUNA

Asier Etxeandia aktorearen bidaia musikal baterako proposamena

Elorrioko Arriolan eskainiko dute 'El intérprete' ikuskizuna, gaur, 22:00etan

> ITSASO ESTEBAN

Asier Etxeandia aktore bilbotarrak antzezten eta kantatzen duen ikuskizuna da, gaur, Elorrioko Arriolan ikus-entzuleei eskainiko dietena. Zuzeneko musika emanaldia eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizuna da *El intérprete*, Etxeandia eta Tao Gutiérrez musikagilea-

ren elkarlanetik sorturikoa. Bidaia musikal bat da emanaldian ikus-entzuleei proposatuko dietena, askotariko sasoi eta estiloko musikan oinarriturikoa. Besteak beste, Chavela Vargas, Talking Heads, David Bowie edo Rolling Stones taldeen kantak dira bidaia horren geldialdieta-

do Catanzaro pianista, Enrico Barbaro kontrabaxista eta Tao Gutierrez perkusioetan izango ditu bidelagun Arriolan.

Oholtzan zein jesarlekuetan "desinhibitzea eta naturaltasuna" gailentzea bilatzen dute Factoria Madre Constriktor ekoizte-
txean batutako sortzaileek, hau da, showa eskaintzea.



Oholtzan zein jesarlekuetan "desinhibitzea eta naturaltasuna" gailentzea bilatzen dute sortzaileek.

> LITERATURA

'Parisen bizi naiz' poesia liburua aurkeztuko du Izagirrek Hitz liburu dendan

Urtarrilaren 23an, 19:00etan izango da hitzordua



Koldo Izagirre idazlea gonbidatu dute Hitz liburu dendara.

> I.E.

Udazkenean kaleratu zuen poesia liburua aurkezttera etorriko da Koldo Izagirre idazle pasaitarra, urtarrilaren 23an, Durangora. Hitz liburu dendan antolatu dute aurkezpena, eta *Parisen bizi naiz* liburuko olerkiak errezitatuko ditu egileak ekitaldi horretan. Hitz-eko arduradunek adierazi dutenez, 45 minutuko iraupena izango du errezitaldiak, eta doako sarrera.

Izagirrek argitara eman duen zazpigarren liburua da Susagaz kaleraturiko *Parisen bizi naiz*. Baina Frantziako hiriburuan ez ezik, beste hainbat hiritan ere kokatuta dago liburua. Poesiaren edertasuna eta gogoetarako eta kritikarako gaia eskaintzen ditu Izagirrek bere azken laneko olerkietan.

Azken hilabeteetan, datorren eguneneko bezalako hainbat

> ANTZERKIA

'Desentxufatuak' eskainiko du Ez Dok Hiru taldeak Abadiñon

> I.E.

Zelaietako Txanporta kultur etxean eskainiko du Ez Dok Hiru Bikoteatroa antzerki taldeak *Desentxufatuak* obra, gaur, 22:00etan. Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreak aritzen dira oholtza gainean, eta euskararen eta sexuaren inguruan dihardu lanak. Duela urte batzuk publikoaren harrera beroa izan zuten *Euskara sencilloaren manifestoa* eta *Larruaizetara* obretako atalik onenak bilduta egin dute *Desentxufatuak*.

Euskararen eta sexuaren inguruan dihardu Telleria eta Martinezen 'Desentxufatuak' obrak

Telleriak idatzirikoa da antzezlanaren testua, bitarteko gutxiarekin, baina gidoi aberatsarekin egindakoa. Bost euroko sarrera edukiko du emanaldiak.

aurkezpen antolatu dituzte Durangoko Hitz liburu dendan; esaterako, Joseba Sarrionandiaren *Hnuy illa nyha majah yahoo* liburuaren edizio berria aurkezteko, Durangaldeko hainbat kultur gile eta zale batu ziren poesia errezitatza, Hitz-en antolaturiko ekitaldian.

Abendu amaieran, Gotzon Barandiaran eta Jon Benito ere izan ziren poesia errezitatzen, zuzeneko musikak lagunduta, Hitz liburu dendan. *(Des)amodio* izenburuko emanaldia izan zen urte amaierako hura.

Liburu dendako arduradunek adierazi dutenez, 45 minutuko iraupena izango du saioak

GEURE DURANGALDEA

JOSUNE
ARANGUREN

Kultur
teknikaria



Parte hartzailetza kultur gintzan

Atalari merezi duen estreina ematekotan, gaiaren hautape-
nak berebiziko garrantzia hartzen du. Izan ere, nork, nola eta zertaz aritzetik eratorriak dira halako edo bestelako kulturako ikuspegiak. Kulturara hurbildu edo kulturatik urrundu ahal gaituzte gaiek.

Zenbaitetan geure buruak gaitzat ez ditugu eta. Botere-
dunen mendetako jarreraren ondorio da herritarrak "ez dut arteaz ulertzen" esanda, Guggenheimi buruzko iritzia ezin botatzea zuzitza, esaterako. Parte-hartzea beste gauza bat da. Gure herri txikiak kultur gintzaz ari garelarik, parte-hartzearen kultura garatuta dugu? Errespetuaren hezkuntzatik datorkigun ikuspegia da, lankidetzan aritu izanak eman diguna, berdintasunezko begiradak sortzen duena, 2+2 lau baino askoz gehiago delako uste sakona. Sineste bat da, benetako fedea, ez jarrera bat. Udalaren planifikazioa elkar-
teen lana sendotzean abiatzea, sare sozialen bitartez egindako iritzi trukaketa, sinergiak elkarrekin egon daitezela bilatzea...

Herritar konprometituak eskatuko ditugu sorkuntza basteu ez dugunean, herri arazoei irtenbidea emateko elkar-lana garatu ez dugunean, informazioa partekatzeko kanalak dinamizatu ez ditugunean. 2.0 teknologiek trebetasunetan aurrera egitea galdegin digute, ez baina gaitasun digitaletan soilik. Jakinduriaren kudeaketan aldaketa sakona behar dugu.

Kultur politika 2.0 Platonen ikasleak asmatu zuen oso aspaldiko *Akademía* batean. Aspaldi ikasi genion Aristotelesi egia iritzien batuketa baino ez dela, eta bere oroimenez, parteka dezagun blog hau.

<http://josunearanguren.blogspot.com.es/>

Glu Glu Produksioak

Hansel eta Gretel

Urtarrilaren 19an
12:00etan - 18:00etan

San Agustín KULTUR GUNEa
DURANGOKO UDALA

PLATERUENA | Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net

URTARRILAK 17 - 22:00etan 12 / 15 euro
GABRIEL EN LEKUA - SENTIKARIA
RAFA RUEDA, ANDONI EGAÑA, OIER GULLAN, ALAIN URRUTIA, AINHOA ALBERDI, IRAIA ELIAS

URTARRILAK 18 8 / 10 euro
SUSTRAI GAUA - DEAD BRONCO
+ THE REVERENDOS + TRIOTA DJ
MUSIKA KONTZERTUAK

URTARRILAK 23 - 19:00etan DOAN
Eskalada eta mendiko igoeren film laburren lehiaketako irabazleen proiektzioa eta sari banaketa.
"NAUFRAGI" Silvia Vidal

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Hemen agertu gura badozu

deitu!



946 217 902

> ARGAZKIGINTZA

Eraikinei, naturari eta pertsonei begiratzeko beste era bat, Museoan

Iñaki Mendizabalen askotariko argazkiak daude Durangoko Museoan ikusgai

> ITSASO ESTEBAN

Joan zen barikuan zabaldu zuten Iñaki Mendizabalen argazkiak biltzen dituen erakusketa Durangoko Arte eta Historia Museoan, eta otsailaren 2ra arte egongo da bertan zabalik.

Pusketak izena du Iñaki Mendizabalek (Berriatua, 1965) Durangora ekarri duen erakusketa honek. Mendizabalen kama-ratik, errealitate zatiak barik narrazio osoak sortzen direla dio erakusketaren aurkezpen orriak; ikuslearen jakin-mina sortzen duten istorioak.

‘Pusketak’ izena du Iñaki Mendizabalek (Berriatua, 1965) Durangora ekarri duen erakusketak

Mendizabalen lanaren aurkezpenean Jose Javier Ganboak dioenez, “Nikon bat adierazpide duen istorio bilatzailea da Mendizabal: enkoadratuak eta enfokatuak egon arren, bere argazkiak sekula ez daude geldi”.

‘ArkITESTURAK’ izeneko atala arkitekturaren formei egindako argazkiek osatzen dute

Gaiari dagokionez, askotari-koak dira Durangoko Museoko erakusketan bildutako lanak; *ArkiTESTURAK* izeneko atala, esaterako, arkitekturak eskaintzen dituen formen argazkiek osatzen dute. Egunerokotasunean begien aurrean izaten ditugun azpiegiturei beste ikuspegi



Erakusketan ikusgai dagoen argazkietako bat.

batetik begiratzeko gonbita da Mendizabalen argazkietakoa: eskailera bati perspektiba berri batetik begiratzekoa, edota leihoaren kristalen erreflexuekin jolastekoa. Zuri beltzeko paisaiak, erretratuak edo argazki esperimentalagoak ere daude erakusketan; kostaldeko irudiak, zein hirietakoak.

Martitzenetik barikura, 11:00etatik 13:30era, eta 16:30etik 20:00etara dago Durangoko Museoan zabalik; 11:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara zapatuetan; eta 11:00etatik 14:00etara domeketan.

> MUSIKA

Greatest Hits jaialdian parte hartzeko izen ematea zabalik

> I.E.

Hasiak dira antolatzaileak maiztzean Durangoko Plateruenean egingo duten Greatest Hits jaialdiaren hirugarren edizioa atontzen. Aurreko edizio bietan bezala, musika talde klasikoan, hau da, rockeko talde ezagunen kanta mitikoen bertsioak eskainiko dituzte jaialdi horretan parte hartzeko izena ematen duten Durangaldeko musika taldeek.

Antolatzaileek asteon aurreratu dute dagoeneko Greatest Hits Gauan aritzeko izena eman duten Durangaldeko bost taldek zeintzuk talderen bertsioak egingo dituzten: Social Distortion, Milencolin, Red Hot Chilli Peppers, Nirvana eta Radio Birdman taldeen kantak izango dira, beste beste, entzungai.

Oraindik ere izena eman daiteke parte hartzeko, DK Produktzioak antolatzailearen webgunean. Gehienez 30 taldek parte hartu ahalko dute ekitaldian.

Duela sei urte egin zuten Greatest Hits Gauaren lehenengo edizioa, eta Durangaldeko 25 talde batu ziren ekimenara. Emaldi bi egin zituzten lehenengo edizioan, Plateruenean.

> SARIKETA

“Saria kalitatezko zerbitzu publikoa eskaintzen jarraitzeko bultzada da”

Urtarrilaren 10eko Madrilgo ekitaldian jaso zuen Iurretako Bibliotekak saria

> I.E.

Espainiako estatuko Kultura Ministerioak eta Udalerrien FEMP elkarteak emandako saria jaso zuten Iñaki Totorikaguena Iurretako alkateak eta Herri Bibliotekako arduradunek, urtarrilaren 10eko ekitaldian.

Aurretik ere beste hainbat aldiz goraipatu izan dute FEMP sariak honetan Biblioteka honen lana, baina estatuko 5.000 biztanletik beherako herrietako liburutegien sailean lehenengo saria egokitu zaio, oraingoan: 12.000 euro eta 180 literatur no-

bedadek osaturiko bilduma izan da Iurretako Bibliotekak jaso duen saria. Herrien biztanle kopuruaren arabera, hiru sailetan eskaintzen dituzte sariak.

“Herri txikia izanda, Iurretako Bibliotekak herri handiagoei baino proiektu osoagoa

eta erakargarriagoa daukala azpimarratu zuten epaimahaikideek Madrilgo ekitaldian”, azaldu zuen Iñaki Totorikaguena alkateak. “Saria lan gogorraren ordaina” dela ere adierazi zuen saria jaso bezain pronto.

Iurretako liburutegiak adin guztietako herritarrek erakartzeko martxan ipinitako ekimenak txalotu ditu lehiaketaren balorazio batzordeak: herriko ikastetxeetako ikasleei zuzenduta egindako bisita gidatuak, ipuin-kontalarien saioak, ipuin eta bertso lehiaketak, eta abar.

Ziortza Onaindia Herri Bibliotekaren kudeatzailearen berbetan, “liburutegia bera eta eskaintzen dituen baliabide fisikoak herritarrei zabaltzeko egi-

ten dugun lana azaldu genuen sarietara aurkeztu genuen dokumentazioan”.

Sarritua izan den bide horretan lan egiten jarraitzeko akuilu dute sari hau Iurretako Herri Bibliotekari: “Kalitatezko zerbitzu publiko bat eskaintzen” jarraituko dutela azpimarratu du Ziortza Onaindia Herri Bibliotekako kudeatzaileak: “Saria aukera bat da egunero-egunero liburutegian egiten dugun lana ezagutzera emateko”.

Herritarrek in ospatu zuten

Urrian, Iurretako liburutegian, Bibliotekaren Eguna antolatu zuten, FEMP sari nagusia jasoko zutela herritarrek in ospatzeko. Umeentzako ipuin-mozorro jaialdia eta helduentzako poesia errezitaldia antolatu zituzten, besteak beste.

Bide berriak zabaltzen dihardute Bibliotekari: azken urteetan atzerriko hizkuntzen liburutegiko sailean erabiltzaile gehikuntza handia nabaritu dutela eta, ekimen berria ipini dute martxan 2013-2014 ikasturte honetan, Iurretako Bibliotekari. Erabiltzaile horientzako ingeles, frantses eta aleman mintzapraktika taldeak ipini dituzte 2013an martxan, lehenengoz, eta erabiltzaile askok erakutsi dute bertan parte hartzeko interesa.

Estatuko 5.000 biztanletik beherako herrietako liburutegien sailean lehenengo saria jaso dute

“Saria lan gogorraren ordaina” dela adierazi zuen Iñaki Totorikaguena Iurretako alkateak



Iurretako alkatea eta Bibliotekako arduraduna joan ziren Madrilera FEMP saria jasotzera.

OSASUN GIDA



FISIOTERAPIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13

Oreka
Idurre Zabala Amezua

**FISIOTERAPIA
ETA ERREHABILITAZIOA**

*Erditze aurreko eta osteko, txizari ezin
eustea, traumatologia, kirola, auto istripua,
drainatze linfatikoa (basektomia ondoren)...*

Iturriza, 44 - behea ezkerre
48240 BERRIZ

Tel.: 946 225 593



PSIKOLOGIA

JON ARRUBARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11



PODOLOGIA

JON GERRIKAETXEBARRIA

Gaixotasunak - Ortopedia
Oin kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA

Ermodo, 2 - 1 eskuma
48200 DURANGO

Tel.: 946 201 100

RPS: 108/13

GOIATZ MURUA
PODOLOGIA KLINIKA

GOIATZ MURUA LETURIAGA
PODOLOGOA

*Kiropodia, onikopatía, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak*

Monagotorre, 4 - behea
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630



ESTETIKA

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

*Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...*

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09



ODONTOLOGIA

**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2 - C behea
48200 DURANGO

Tel.: 946 819 951

RPS: 145/13

J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13



OPTIKA

ZENTRO OPTIKOA

*Teknika aitzindariak, kontaktologia, haurren
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria,
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA*

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ

Tel.: 946 225 099

RPS: 162/13

Kirola

Silvia Vidal | Bartzelona (Katalunia), eskalatzailea

“Hormak nik neuk bakarrik igotzen gozatu egiten dut; emozioak biderkatu egiten dira”

Goi-mendiari eskainitako hitzaldi sorta osatu dute Plateruena Kafe Antzokian; datorren egunean, 19:00etan, Silvia Vidal kataluniarrak Himalayan aurretik inork igo gabeko horma bat bakarrik zelan igo zuen kontatuko du, proiektzio batek lagunduta



Silvia Vidal, horman gora bizi izan dituen hamaika abenturetako batean. Bere bizipenei buruzko testuak www.vidalsilvia.com webgunean irakurri daitezke.

> JOSEBA DERTEANO

Goi-mendietan aurretik beste inor ibili bako hormak probatzea gustatzen zaio Silvia Vidal eskalatzaileari. Gainera, bakarrik joan ohi da. Bere ibilbidean igoera asko egin ditu baldintza horiek beteta. Durangoko Plateruena Kafe Antzokiak horietako abentura batean jasotako irudi eta bideoekin osatutako proiektzioa eskainiko du urtarilaren 23an, 19:00etan. Vidal ere bertan egongo da irudiei berba ipintzeko. ‘Naufragi’ izeneko proiektzioa 2010ean, Himalayan, Kinnaur Valley haranean dagoen goi-mendi bateko eskaladaren testigantza bisuala da. 25 egunean 1.050 metro igo zituen, 5.250 metroko garaiera heldu arte.

Noiz eta nola eduki zenuen horma bertikal horren berri?

Interneten begira nenbilela aurkitu nuen. Oso sorpresa atsegin izan zen.

Zerk erakarri zintuen? Zer izan zen probatzera bultzatu zintuena?

Toki urrun batean egoteak era-

karri ninduen; eta hasiera puntua non zegoen ez jakiteak edo berau eskalatzea posible izango ote zen jakiteak ere bai. Erronka polita zen. Gainera, hormak berak ere erakartzen ninduen, oso monolitikoa, bertikala eta luzea delako.

Inguruari buruzko zer informazio batu zenuen bertaratu aurretik?

Egia esanda, oso informazio gutxi nuen. Argazkia egin zuena ezagutzen nuen (John Middendorf) eta idatzi egin nion. Urrunetik ikusi zuela esan zidan, eta ez zekiela beste ezer; ez garaierarik, ez sartu-irteerak non egon zitezkeen, ez ezer. Baina handia iruditzen zitzaidan, eta polita zen. Beraz, igoera horri buruz nik nuen informazio bakarra argazkia eta datu horiek ziren.

Inoiz eskalatu izan duzu goi-mendiko hormarik hain informazio gutxiarekin?

Hain gutxiarekin ez, baina bai oso gutxiarekin. Toki urrunetara zoazenean eta egiten den lehenengo igoera denean, informazio gutxi egoten da.

Beste batzuetan ere bakarrik ibili izan zara. Zergatik horma handietara bakarrik joateko erabaki hori?

Horrelako eskaladak bakarrik egiten gozatu egiten dut. Bizipenak, inpresioak eta emozioak biderkatu egiten dira eta oso gogorra den arren, asetu egiten nau.

18 egunerako kalkulaturako igoera 25 egunera luzatu zen askotariko zailtasunekin: Montzoi euritsua, hipotermia, elikagai falta... Zelan eraman zenuen oztopo horiek guztiak?

Bada, batez ere, motibazioari esker. Horrelako espedizio batera benetan gogo biziz joan ezik, eragozpen txikiak aurkitzen duzunean bertan behera uzten duzu. Goi-mendi batean hilabete eta erdian bakar-bakarrik zaudenean, beti sortzen dira zailtasunak eta ustekabekoak, beraz, egoera konplikatuak aurkituko dituzula mentalizatuta joan behar duzu. Kontzientzia hori eta motibazioa baldin badituzu, eramanerrazagoa da. Gero, zortea ere kontuan hartu behar da.

Zailtasun guztiekin aurrera jarraitu zenuen. Non dago muga?

“

Toki urrun batean egoteak erakarri ninduen, eta baita hasiera puntua non zegoen ez jakiteak ere”

“

Ustekabekoak beti sortzen dira; egoera konplikatuak egongo direna argi eduki behar duzu”

“

Gauzak txarto badoaz, ez da gaitza bertan behera uztea; zaila dena da txarto doazela konturatzea”

Noiz erabakitzen da eskalada bat bertan behera uztea?

Motibazioa osorik baldin bada, ez dakit.

Horman bertan zaudenean eta egoera zailtzen denean gaitz egiten da bertan behera uzteko erabakia hartzea?

Gauzak oso txarto baldin badoaz, ez da gaitza erabaki hori hartzea. Zaila dena da gauzak txarto doazela konturatzea.

2012an Patagonian beste horma bat eskalatzea joan zinen argentinar bigaz batera. Oihanetan barrena eta lakuak zeharkatzen ibili behar izan zenuen. Zelan gogoratzen duzu hilabete biko abentura hori?

Argentinako eskalatzaile biek inguruetara baino ez zidaten lagundu, eta ondoren, ia hilabete bitan bakarrik egon nintzen eremu hartan. Bai, oihaneko bizimodu hori esperientzia berri bat izan zen niretzat. Okerrena errekek izan ziren: zeharkatzeko oso arriskutsuak ziren, eta itzuleran bakarrik ibili behar izan nuen petate guztiak aldean neramatzala. Indian zamaketa-riak egoten dira, baina joan nintzen tokian eta itzuleran, ez. Hori izan zen niretzat gogorrena.

Aurretik inork igo gabeko horma batek xarma berezia izaten du?

Toki ezezagunak izaten direnez, litekeena da inor ez aurkitzea; eta hori da nire ustez xarma duena. Ez da inor egoten ez kanpamentu nagusian, ez inguruan dagoen eremuan.

Inoiz eskalatu duzu Euskal Herriko txokoren batean? Eta Abadiñon dauden Atxarteko haitzetan?

Bai, eskalatu izan dut. Orain urte batzuk, pare bat bider eskalatu nuen Atxarteko haitzetan, eta kirol gune batzuetan ere ibili izan naiz.

Etorkizunari begira zeintzuk izango dira zure hurrengo erronkak?

Nire erronkak ez ditut aurretik kontatzen. Gurago dut erabakitzeke askatasuna azken unera arte mantendu. Azken une hori hormaren hasiera puntuan egoten da.

> **ERRUGBIA**

Barrutieta eta Murray: Euskal errugbiaren etorkizuneko hazi bi

Espainiako Autonomien arteko Txapelketa jokatu dute, eta federazioak Olinpiar Jokoei begira sortutako teknifikazio egitasmorako aukeratu ditu



Uribarri Barrutieta eta Joana Murray Arripausuetan, eguazteneko entrenamendua hasi aurretik.

> **JOSEBA DERTEANO**

Joana Murray (18 urte, Durango) eta Uribarri Barrutieta (17 urte, Durango) Durango Rugby Taldeko jokalaria dira eta joan zen asteburuan Espainiako Autonomien arteko Txapelketa jokatu zuten Euskadiko selekzioa-gaz. Errugbi 7 eran aurretik ere Euskadigaz jokatutakoak dira, baina errugbi 15ean estreinakoa aldia izan zuten.

Olinpiar Jokoei begira jokalariai trebatzeko errugbi federazioaren teknifikazio proiektuaren barruan daude

Zapore gazi-gozoa utzi die txapelketak. Alde batetik pozik daude bizitako esperientziarekin, “oso polita izan delako eta taldekideen artean oso giro ona geneukalako”; baina Barrutietaren berbetan, lehenengo hiruren artean sartzea zuten helburu, eta ez dute lortu. Lehenengo

partiduan aukera barik geratu ziren, Valentziaren aurka 10-5 galduta. Entsegu egin eta markagailuan aurea hartetik metro bira geratu ziren, eta, ondoren, valentziarrak aurreratu zitzaizkien: “Markagailuan aurea hartzea garrantzitsua da. Entsegu hori lortu izan bagenu, nire ustez, partidua beste era batera joango zen”, gogoratu du Murrayk. Txapelketa Murtzia eta Andaluziaren kontrako garaien banarekin amaitu zuten.

Olinpikoar Jokoak

Euskadiko Errugbi Federakundeak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzagaz, proiektzio handia duten errugbi jokalarientzako teknifikazio egitasmoa abiatu du. Epe luzera begirako proiektua da eta, batez ere, 2016an, Brasilen, eta 2020an, Japonian izango diren Olinpiar Jokoei begira, euskal jokalaria ahalik ondoen trebatzea du helburu, ondoren, Espainiako selekzioa hautatzaileak Olinpiar Jokoei begira joateko aukera eman diezaien.

Murray eta Barrutieta federazioaren teknifikazio egitasmo horren barruan daude. Oso gutxi dira Euskal Herri osoan hori esan dezaketenak. Hilean behin edo birritan Arrasateko azpiegiturretan batuko dira etorkizun oparoa duten jokalaria gazteak, eta teknifikazio saioak egingo dituzte. Oraingoz saio bi izan dituzte; abenduan bat eta astelehen honetan bigarrena.

Durango-Urbealde

Euskal Ligari dagokionez, Durango eta Urbealde emakumeetan talde bakarrean batu izana “oso erabaki ona” izan dela uste dute. “Iaz azken aurreko amaitu eta partidu bakarra irabazi genuen”, gogoratu du Barrutietak. Aurten, aldiz, sailkapeneko hirugarren postuan daude partidu bat berdindu, bi irabazi eta bakarra galduta: “Urbealdeak batez ere melege jokalaria zituen eta guk lerrotakoak. Beraz, elkarren osagarri gara, eta gero eta hobeto ulertzen dugu elkar”, dio Murrayk.

> **TXIRRINDULARITZA**

Egoitz Garcia bigarren dago La Tropicale itzulian

Afrikako Gabongo estatuan La Tropicale Amissa Bongo itzulia amaitzeko hiru etapa falta direnean Cofidis taldeko Egoitz Garcia (Atxondo, 1986) bigarren jarraitzen du, Luis Leon Sanchezengandik segundo bakarrera. Lehia estua darabilte txirrindulari biek.

Helmugan eta tarteko helmugetan lortutako segundoei garrantzi handia izan dute orain arte. Lehenengo etapa Sanchezek irabazi zuen, baina tarteko helmugetan lortutako segundoei Garcia eman zioten liderraren maillota. Bigarrenetan, Sanchez ipini zen lider. Eguaztenean, atxondarra hirugarren sailkatu zen esprintean, eta batutako segundoei liderrarengandik segundo bakarrera hurreratu zuten. Atzo ez zen aldaketarik gertatu. Hiru etapa falta dira itzulia amaitzeko.

> **FUTBOLA**

Iurretakok eta Kulturalak lehia estua gazteetan

Bizkaiko Ohorezko Mailan, Durangaldeko Kulturala B-k eta Iurretakok sailkapeneko lehen bi tokiak betetzen dituzte. Durangoko taldea lider dago igoera postuan eta Iurretako bigarren, puntu batera, igoerako promozio postuan. Talde biak indartsu dabilta etxean: ez dute partidurik galdu. Bost irabazi eta bi berdindu dituzte. Kulturalak Ugeragaren bisita jasoko du zapatuan, 18:00etan, eta Iurretakok Santurtziren zelaia bisitatuko du bihar arratsaldean.

Durangaldeak gazte mailetan duen ordezkaritza nagusia Durangoko Kulturala A da, Euskadiko Ohorezko Mailan. Bigarren itzulia hasita dagoenean, sailkapeneko bederatzigarren tokian daude, goiko postuetatik oso urrun eta beheko postuetatik zazpi puntura.

> **ADITUAREN TXOKOA**

Oihana Azkorbebeitia

EHko mendi lasterketen taldeko hautatzailea

Mendian oinez zein korrika

Aspaldiko eztabaida da eta beti eman du zeresana. Batzuek patxadaz eta lasai-lasai hartzen dute mendi irteera, ardo bota lepoan, hamarretako eta guzti. Beste batzuek kirola egiteko aukera paregabea ikusten dute mendian, gora eta beheara korrika ibiltzeko aukera, landa, baso zein harri artean. Mendi irteera modu desberdinean bizi arren, batzuek zein besteei sentipen bertsuak dituzte mendian. Herriko mendi taldeak antolatutako martxara doazenean zein entrenatzeko asmoz ahuntzen antzera dabilzan korrikalariak. Denak irten dira mendiaz gozatzeri. Berez, ez litzateke arazorik egon behar.

Aspalditxo batean kontrako iritzia irakurri nion mendizale bati, mendiko jardueri buruzko aldizkari batean. Gogoan dut gogor kritikatzeko zuela mendian korrika ibiltzea. Korrika egitea lehia dela, eta mendia ez dela lehiarako lekua. Esaten zuen mendian korrika dabilenak ez duela mendiaren esentzia errespetatzen. Zein da mendiaren esentzia? Non dago idatzita zer den? Bere iritzia emateko eskubide osoa du, zelan ez, baina ez nago ados. Mendian korrika egitea baino gauza ederragorik! Nik hala bizi dut eta biziko dut gorputzak laguntzen didan artean. Aukera guztiak dira zilegi. Denek dute mendiaz goatzeko eskubidea, mendira txikirri-txakarra doan zein korrika doan. Hori bai, mendia, mendiko animaliak, landareak eta ingurumena errespetatuta.

Durangaldeko Baserritarren Elkartea



Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

katerin
ardoak
iñaki
uribe



Eguneko menuak - Asteburueta menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltzan.com

PIVE plana badago, PIVE plana ez dago...

PIVE plana Forden dago oraindik.



FORD FIESTA

SYNC Erabateko Konektibotasuna

8.390€

FORD FOCUS

EcoBoost Motorra

12.790€

Gasolinazko motorren
potentzia eta diesel
motorren eraginkortasuna.



ford.es

**Ford Fiesta eta Focus gama; batez besteko kontsumo konbinatua 3,6tik 7,2ra (l/100 km).
CO2-aren isurtzea 95 g/km-tik 160 g/km-ra**

Fiesta 3p Trend 1.25 60 zaldi-potentzia (44kw) airearekin eta CD MP3 irratiarekin; Focus Trend 1.0 EcoBoost (EcoBoost Motorrak %20ra arte hobetzen du kontsumoa, motor arrunt batekin alderatuz gero) Auto-Start-Stop 100 zaldi-potentzia (74kw) 5P Barneko Paketea eta Style Paketearekin. Eskaintzek honako hauek dituzte: BEZa, I.M., garraioa, sustapen deskontua, Aport. Emate eta deskontua FCE Bank plc S.E. entitatearekin finantzatzearren, "Vente a Ford Credit" kanpainaren bidez; gutxiengo iraunkortasuna 24 hilabete. Gobernuaren PIVE planaren ekarpenari lotua. Penintsulan eta Balear Uharteetan baliozko, hilabete amaierara arte. Ez da bateragarria bestelako deskontuekin. Posible da argazkiko modeloa eta eskaintzakoa bat ez etortzea.

FORD KONDIA

Otaola etorb. 20600 EIBAR

Tel.: 943 207 650

Tel.: 943 200 966

www.fordkondia.com

ZIORLA AUTOAK

Santamaña kalea, 19

48215 IURRETA

Tel : 946 217 130

> XAKEA

Iaz atarian geratu ondoren, igoera dute helburu Abadiño eta Larrasoloeta taldeek

Abadiño eta Durangoko xake talde nagusiek igoera dute helburu Eukal Ligan eta Bizkaiko Lehen Mailan; Elorrioko Zaldi Baltza Bizkaiko Maila Gorenean dabil eta mailari eusten saiatuko da



Zapatu arratsaldean Tuterako (Nafarroa) San Juan taldearen aurka jokatu dute Traña-Matienako lokalean.

> JOSEBA DERTEANO

Klubaren arteko Euskal Herriko Txapelketa hasi dute Abadiño Xake Taldeak, Elorrioko Zaldi Baltzak eta Durangoko Larrasoloetak. Abadiñok eta Larrasoloetak igoera dute helburu Euskal Ligan eta Bizkaiko Lehen Mailan. Zaldi Baltza mailari eusten saiatuko dira.

Joan zen asteburuko lehen jardunaldian Abadiñok 3,5-0,5 menderatu zuen Zornotza. Irabazteaz gainera, puntu asko batu zituen. Abadiño harrobiko lan ona egiten dabilela ikusteko ere balio izan zuen lehen jardun-

naldiak. Talde titularreko xakelari Diego Sarralde gaixorik zegoenez, Hirugarren Erregionalean dabilen 13 urteko Alberto Garcia eraman zuten ordezkio legez, eta bere partida irabazi egin zuen. Gaztea da, baina ate joka dator. Bestela, Abadiñoko laukote titularra honako xakelari hauek osatuko dute: Diego eta Rodrigo Sarralde anaiek, Alain Prietok eta Ieray Galtzagorrik.

Abadiñok, orain hiru urte, Euskal Ligari uko egin eta Maila Gorenera jaistea erabaki zuen. Motibazioa falta zitzaizen hain liga indartsuari aurre egiteko.

Indarberrituta, igoera lortu zuten orain urte bi, eta Sarralde anaia taldera batu ondoren, iaz berriz izan ziren igotzekotan. Aurten Lehenengo Mailatik Ohorezko Mailara igo gura dute Euskal Ligan.

> Zaldi Baltza mailari eustera

Zaldi Baltzak Abadiño B-ren aurkako norgehiagoko irabazita (2,5-1,5) hasi du denboraldia Maila Gorenean. Iñigo Axpe, Aitor Arabiotorre, Aitor Gallastegi eta Alberto Sardonek osatu zuten laukote titularra. Oinak lurrean dituzte, eta maila

gogorra dela kontuan hartuta, bertan geratzeko adina merituegitea itxaroten dute. Iaz Euskal Ligatik jaitsi zen Leioaren kontra jokatu dute bihar, eta sorpresa ematen saiatuko dira.

Iaz gertu geratu ondoren, aurten igoera dute helburu Larrasoloeta taldean: "Maila Gorenean egoteko taldea dugula uste dut", dio Jose Alfaro Larrasoloetak xakelariak. Orain urte bi jaitsi ziren maila horretatik. Asteburuko talde titularra Jesus Unzueta, Sabino Arauzo, Iñaki Lombraña eta Felipe Iglesiasek osatuko dute.

> SOKATIRA

Denboraldiko lehen txapela 680 kilokoan

Tiraldi bakarra galdu zuen Ibarraren aurka

Goma gaineko Lauko Txapelketan ohi duten mailatik behera ibili ostean, Abadiño sokatira taldeak indartsu hasi du zortziko denboraldia. Lehenengo txapelketa, 680 kilora artekoa, irabazi egin zuten joan zen dome-

kan, Aian. Ibarraren kontrako tiraldi bat galdu eta gainerako denak irabazi zituen. Hurrengo hitzordua urtarrilaren 25ean izango dute, Idiazabalen, eta 640 kilora arteko txapelketa jokatu du Abadiñoko taldeak.



Abadiñoko sokatiralariak 680 kilora arteko txapelketa irabazi ostean.

> KROSA

Ariznabarreta txapeldunorde Bizkaiko txapelketan

Joan zen asteburuan Ortueillan jokatuak Bizkaiko Kros Txapelketan laugarren tokian amaitu zuen Oier Ariznabarreta durangarrak (Durango Kirol Kluba). Krosa irabazi zuen Iñigo Urretxuaren atzetik bigarren bizkaitarra izan zen Ariznabarreta, eta bera da Bizkaiko txapeldunorde berria krosetan. Durango Kirol Klubak bigarren tokian amaitu zuen taldekako sailkapenean ere.

Krosetan daramatzan hiru urteetan lortu duen emaitzarik onena du korrikalari durangarrak. Horren arrazoiak bat da prestaketa aldatu duela. Maiztzeke Zegama-Aizkorriara begira apurka hasi baino, entrenamendu saio gogorrek egiten dabil hasieratik. Kros eta duatloi denboraldietan sasoian egon gura du.

> ARETO FUTBOLA

Derbi bi jokatu dituzte zapatuan Bigarren Erregionalean

Zapatu arratsaldean areto-futboleko derbi bi jokatu dituzte Durangoko Landako kiroldegian. Derbi biak Bigarren Erregional mailari dagozkio. Lehenengo, 15:45ean, Racing Tolosto taldeak Berrizko Presion Break B taldearen bisita jasoko du. Berrizko taldea hirugarren dago sailkapenean, liderrarengandik puntu bakarrera, eta durangarrak sailkapenaren erdian daude.

Gu Lagunak eta Mendibeltz taldeen arteko derbia 17:00etan hasiko da. Talde biak beheko postuetan dabilta. Gu Lagunak taldeak hiru porrot zeramatzen jarraian, joan zen asteburuan Galdakaon 0-5 irabazi zuen arte Biarko Gizonak azken sailkatuaren aurka. Mendibeltz 2-6 galtzetik dator Racing Tolostoren kontrako derbia.

> AGENDA

> PILOTA

DURANGALDEKO PILOTA TXAPELKETA (finalerdiak)

- Atxondo - Zaldibar (umeak)
- Lea Ibarra - Atxondo (kimuak)
- Durango-Lea Ibarra (haurrak)
- Elorrio - Markina (kadeteak)
- Lea Ibarra - Zaldibar (gazteak)
- Markina - Durango (nagusiak)
- Barikuan, 18:00etan, Durangoko Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan.
- Lea Ibarra - Iurreta (umeak)
- Elorrio - Abadiño (kimuak)
- Markina - Iurreta (haurrak)
- Lea Ibarra - Abadiño (kadeteak)
- Iurreta - Markina (gazteak)
- Abadiño - Lea Ibarra (nagusiak)
- Zapatuan, 16:30ean, Atxondon.

> FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

- Iurretako - Gallarta
- Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaian.

LEHEN ERREGIONALA (gizonak)

- Berriz - Gernika Sporting
- Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun.

BIGARREN ERREGIONALA

- Ezkurdi - Lezama Sport
- Zapatuan, 18:00etan, Arripausuetan.

LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)

- Iurreta - Gallarta
- Domekan, 11:00etan, Larrakozelaian.

> ARETO FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

- Elorrioko Buskantza - Internacional Eder Kafetegia
- Zapatuan, 18:00etan, Elorrian.
- Mallabia Tabiracolor - Santurtzi
- Domekan, 17:15ean, Zaldibarran.

MAILA GORENA

- Kurutzia - Iturririxu
- Barikuan, 20:30ean, Landakon.
- Sasikoa B - Elorrioko B
- Zapatuan, 18:30ean, Landakon.

BIGARREN ERREGIONALA

- Racing Tolosto - Presion Break B
- Zapatuan, 15:45ean, Landakon.
- Gu Lagunak - Mendibeltz
- Zapatuan, 17:00etan, Landakon.

> SASKIBALOIA

LEHENENGO MAILA

- Tabirako Baqué- Burlada
- Domekan, 12:00etan, Landakon.

> ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

- D.R.T. - Oviedo
- Zapatuan, 16:00etan, Arripausuetan.

EUSKAL LIGA

- Elorrio Parra Taberna - Funes
- Zapatuan, 16:00etan, Elorrian.

Ingurumen Iraunkortasunaren Euskal Azoka



berdeago

Urtarrilak 24 / 25 / 26

Durango, Landako Gunea

URTARRILAK 24, OSTIRALA

16:00 - 16:15 Irekiera
16:15 - 17:00 Berdeagoren aurkezpena
Hitz Berdea gunean

HITZ BERDEA GUNEA

18:45 - 19:45
Nire etorkizuna berdea izatea nahiko nuke? UPV/EHU
- Energia Berriztagarrien Graduaren Aurkezpena
[Ángel Franco]

ZIRKULO BERDEA GUNEA

17:00 - 20:00
Birziklapen-berrerabilpenaren inguruko tailerra
[Adina: 2-6 / 6-12]
- Aktibatu eta (GAP)-ek antolatua

20:00 Itxiera

URTARRILAK 25, LARUNBATA

10:00 Irekiera

HITZ BERDEA GUNEA

11:00 - 13:00
Gaur egungo eredu energetikoa egokiena al da?
Ezarritakoaz aparteko energia eredu desberdinak
- Beste energia eredu bat sustatzen duen elkarte
- Beste herrialde batzuetako esperientzia energetikoak:
Danimarkako eredu energetiko kooperatiboa
[Leire Gorroño]
- Ecoo eta Goiener energia berriztagarriak sustatzen
dituzten enpresak

16:00 - 17:00
Berdeago, ingurugiro berrikuntzaren arloko gune
profesionala

18:00 - 20:00
Energia berriztagarriak aukera bilakatu dira
Euskadirentzat orain eta etorkizunari begira
- Arrakasta kasua: Eroski [Alejandro Martínez Berriochoa,
Eroskin RSC-ko zuzendaria]

ELKARTEGI

11:00 Sari banaketa, Aktibatu eta (GAP)-en laguntzaz

ZIRKULO BERDEA GUNEA

10:00 - 11:15
Ikasi ezazu zure eolikoa egiten diru gutxirekin
[Adina: +16]
- Durangoko Maristak Ikastetxea [Luis Sutil]

12:00 - 15:00
Kontsumo arduratsu eta jasangarriaren inguruko
tailer hezitzaileak [Adina: +5]
- Eusko Jaurilaritzak antolatua

17:00 - 18:00
Argiaren fakturak ulertzen ikasi [Adina: +18]
Beste energia eredu bat sustatzen duen elkarteak antolatua

18:00 - 20:00
Magia! betaurreko magikoak!! Etorkizun Berdea
irudikatzen [Adina: +6]
- Berdeago taldeak antolatua

20:00 Itxiera

URTARRILAK 26, IGANDEA

10:00 Irekiera

HITZ BERDEA GUNEA

11:00 - 12:00
Kutsaduraren ondorioak gizakiarengan
- Mikel Alvarez Yeregi [Mondragon Health-eko zuzendari
orokorra]

12:30 - 14:00
Etxearen aurrealdea birgaitzeko pausoak, kostuak eta
energia murriztuz
- Teusa zaharberritze teknikak, [Aznar Sanchez] eta Clave
estudio Arkitektura & Ingeniaritza [Joseba Peña]

16:00 - 17:30
Etorkizuneko eta gaur egungo mugikortasun jasangarria,
nola mugituko gara?
- Zeintzuk izango dira etorkizuneko kotxe eta erregai jasangarriak?
Lead Editor Motorpasion-en [Javier Costas]
- Garraioaren ingurugiro adierazleak Eusko Jaurilaritzako ETS
